

# GIZ (Gazteentzako Informazio Zerbitzua)

*Gaztea zara? Lana bila zabilz? Ikastaro bat egin gura dozu? Musika talde bat daukazu eta entsegu gela barik zagoze? Bidaiak egiteko informazioa behar dozu? Bermeoko Udalak zure eskura jartzen dau Gazteentzako Informazio Zerbitzua, zure intereseko gaien inguruko informazioa eskaintzeko eta izan daitezuzan eskaerak, zalantzak, iradokizunak, e.a. jaso eta bideratzeko. Horretaz ganera, GIZek honakoa eskaintzen deus:*

1. Ume eta gazteei zuzendutako programa zabala, zerbitzu eta jarduera ugari: Gaztelekua, Ludoteka, 'Bermesex' Sexologia Orientazio Zerbitzua, Bermeoko Kale Hezitzailea, Goizeko Udalekuak, nazinoarteko txartelen jaulkipena (ikasle, irakasle, aterpe...), musika taldeentzako entsegu gela, Bidaiatoka zerbitzua, Internetera sarbidea ordenagailuen bidez zein Wifi bidez, aisialdiko ikastaroak, e.a.
2. Herriko gazte eta kultur taldeen proposamenak eta ekimenak bideratzen doguz. Era berean, gazteei zuzendutako jarduerak zein aisialdiko ekintza bereziak finantzatzeko diru-laguntzak emoten doguz.
3. Bermeoko gazteriaren parte hartze aktiboa sustatzeko tresnak martxan jarri doguz: Gazte Maidxie, LokaLeku parte hartze prozesua, e.a.
4. Gazteei zuzendutako formazio ikastaroak antolatzen doguz: Aisialdiko Begirale eta Zuzendari ikastaroak, Jantokiko Begirale ikastaroa, Ur Sorosle ikastaroa, e.a.
5. Eskualdeko gazteen enplegarritasuna eta ekintzaitza sustatzeko "Lana bilatzea Lana da" programa jarri dogu martxan, hainbat formazio saioz eta ekimenekaz osotuta: Busturialdeko Enpresa Ideien Lehiaketa, 'Gaztedi Busturialdea Bekak', gazte ekintzaileentzako saioak, e.a.

## ORDUTEGIA

### Neguan:

Asteleheneretik eguenera: 16:00-20:00  
Martitzenetik barikura: 12:00- 14:00

### Udan (ekainaren 1etik irailaren 16ra):

Asteleheneretik barikura: 10:00-14:00

## HARREMANETARAKO DATUAK

e-posta: [giz@bermeo.org](mailto:giz@bermeo.org) / Web: [www.giz.bermeo.org](http://www.giz.bermeo.org)  
Tel.: 94 617 91 58

### Kokapena:

[Gizarte eta Kultura Etxea \(Irakaskintza kalea 14-16, 1. solairua\).](#)  
Facebook/Twitter/Instagram/Tuenti: GIZBermeo

